



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 5a

135. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Foru Legea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Legea, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Foru Lege proposamena, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen. Osoko Bilkurak bazter utzia (17. or.).
- Foru Lege proposamena, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (17. or.).
- Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (17. or.).
- Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testuategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (18. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (18. or.).
- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (18. or.).

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (19. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (19. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Proposamena erretiratzea (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriak lehen puntuak dioenez, lege hori Konstituzioaren 149. artikuluan 1. idatz-zatiko 14. eta 18. puntuetan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritako moduan aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapeneko hirugarrenak dakartzaten berezitasunak aintzat hartuta betiere.

Horrez gain, adierazten du zerbitzuak emateko moduz erabakitze eskumena, Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 26.2 artikuluan aipatzen dena, Nafarroako Foru Komunitateari dago kiola, kasuan kasuko koordinazio eta tutoretza ahalmenak alde batera utzi gabe.

Beste alde batetik, xedapen gehigarri horren bigarren puntuak ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen esparruan,

eskumenak esleitu ahal dizkie bere lurraldeko udalderriei eta Nafarroako gainerako toki entitateei, eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. artikuluan 3., 4. eta 5. idatz-zatietan adierazitako irizpideak bete beharko dira.

Lege horrek 2013ko abenduaren 31n hartu zuen indarra eta, ikusirik atzeratu egin daitekeela Nafarroako Toki Administrazioa osotara berrantolatzeko foru lege bat onesteko prozesua eta toki entitateak finantzatzeko sistema bat lege horretara egokitua onestekoa, beharrezko jotzen da gure toki araubideko alderdi zehatz batzuk arautzea, halako moduz non, orain aipatuko diren helburuak lortuz, araubide horren berezitasuna babes dadin.

Lehenengo eta behin, toki entitatearen lege izaera eman nahi zaie administrazio publikoek eta ez beste inork nahitaezko udal zerbitzuak emateko sortzen dituzten partzuergo-entitateei; bi arrazoi daude horretarako: komenigarria eta beharrezkoa delako tokiko zerbitzuak identifikatzea eta haien kudeaketari toki entitateek berezkoa duten araubide juridiko bat ematea, horien barrenean administrazio publiko desberdinak izateak distortsiorik eragin gabe; eta, bigarrenik, beste arrazoi bat da entitate horiek bereizi behar direla barrenean entitate pribatuak dituzten –irabazi-asmorik gabekoak eta nahitaezkoak ez diren toki intereseko beste zerbitzu batzuk emateko sortuak–gainerako partzuergo-entitateetatik.

Bigarrenik, modu antolatuan desblokeatu nahi dugu administrazio zerbitzuen batasunak sortzeko foru araudian ezarritako legezko traba, biztanle kopuru txikiagoa duten udalderriei tresna egoki bat emateko behar adinako kudeaketa ahalmena izan dezaten eta, halatan, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloko legeetan eskatzen den aurrekontu eta finantza kontrola bermaturik egon dadin.

Horrez gain, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren

27ko 27/2013 Legean ezarritako eskumen araubide berriari dagokionez, gure toki entitateen eskumen araubidea babesteko eta Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautuko dituen foru legearekin bat onetsi beharreko finantzaketa sistema berriak indarra hartu bitarte, beharrezkotzat jotzen da honako aurreikuspen hau ezartzea: lege horrek indarra hartu aurretik udalerriek ondotik zehazten diren gaietan berezko izan dituzten eskumenak edo haiek beren gain hartutakoak toki entitateek beraiek betetzen jarraituko dute, une horretara bitarte egin duten bezala. Hauexek dira gaiak: oinarritzko osasun laguntzaren eta osasun arloko ikuskapen zerbitzuen kudeaketan parte hartzea, gizarte zerbitzuak ematea, eta hezkuntza.

Garrantzizkoa da, halaber, aurreikustea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erabakiko duela zerbitzuak emateko modua, Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 26.2 artikulua aipatzen duena.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa.

**Bat.** 3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

- a) Administrazio-barrutiak.
- b) Kontzejuak.

c) Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea, Aralarko Elkarte eta foru lege honek indarra hartzen duenean herri ondasunen jabe edo administratzaile diren gainerako korporazio tradizionalak.

d) Udalerrri bat baino gehiago biltzen dituzten entitateak, Nafarroako Foru Komunitateak foru lege bidez sortuak, eta administrazio zerbitzuen batasunak.

- e) Mankomunitateak.
- f) Toki partzuergoak”

**Bi.** 46. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“3. Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautzen dituen foru legeak indarra hartu bitarte, alegia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen denak, Nafarroako udalerriek, administrazio zerbi-

tzuen batasunak euren borondatez sortu nahi badituzte, honako determinazio hauek aurreikusirik izan beharko dituzte estatutuetan:

a) Batasuneko kide diren udalerriek elkarren mugakide izan beharko dute, eta azpieskualde berekoak edo mugakide den beste batekoak, baina betiere Nafarroako Lurralde Estrategiako eskualde berekoak. Batasunaren bestelako edozein eraketa instituzionalek Nafarroako Gobernuaren berariazko baimena beharko du.

b) Batasunaren helburu soziala, hau da, administrazio zerbitzuak batera ematea, bere jardun esparruan dauden kontzejuetako behar administratiboetara ere zabalduko da, kasuan kasuko udalerrien kargura, kontzejuak berariaz hala adierazten badute.

c) Udalerriek batasunari eskuordetutako eskudantziak erabiltzean, batasunak errespetatu egin beharko ditu betiere aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloan indarra duten legeak.

d) Administrazio zerbitzuen batasun berri bat eratzeko, nahitaez eskatuko da entitate berriak ukitutako udal guztietako osoko bilkurek gehiengo osoz onets dezatela batasun horretan sartzea.

Borondatezko batasun horien antolaketa eta funtzionamendua kasuan kasuko estatutuetan ezarritakoak zuzenduko ditu, eta, subsidiarioki, mankomunitateetarako ezarritako araubide orokorra aplikatuko zaie.

Baldin eta administrazio zerbitzuetarako batasun bat –3.1.d) artikuluan aipatzen direnetakoa– sortu gogo duten udal horiek lege edo borondatez sortutako batasun batean sartuta baldin badaude edo bertako kide badira, beharrezkoak diren tokiko funtzio publikoko lanpostuak finantzatu ahal izateko behintzat, batasun haren esparruak bat etorri beharko du, gutxienez, bertan sartutako udalenerkin, non eta Nafarroako Gobernuak beste zerbaitearako baimena ematen ez duen, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautuko dituen foru legeak aurreikusitakoarekin bat.

Nolanahi dela ere, administrazio zerbitzuetarako batasun bat eratzen bada xede horretarako sortu edo eratuta dauden entitateetan sartutako udalerrien artean, entitate horiek desegin egingen dira eta, kasua bada, batasunean sartuko dira une horretan kargu horiek betetzen ari diren funtzionarioak.

Elkarte horien toki entitate izaerak bide ematen du beren gain har dezaten, beren estatutuetan ezarritako moduan betiere, borondatez erabakitzuten diren udal eskudantzien erabilera”

**Hiru.** 212. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“1. Toki entitateak izaera desberdinetako administrazio publikoekin elkartu ahalko dira, eta bi aldeen intereseko helburuak erdiesteko partzuergoak eratu.

Halaber, partzuergoak ezarri ahalko dituzte irabazi-asmorik gabeko elkarre, fundazio edo entitate pribatuekin ere, horiek bilatzen dituzten interes publikoko helburuak toki administrazioaren helburuekin bat baldin badatoz.

2. Partzuergoak borondatezko izaera duten elkarreak dira. Berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa duten entitate publikotzat joko dira.

3. Beren eskumeneko zerbitzuak toki araubideko legeetan aurreikusirik dauden bideak erabiliz eman ahalko dituzte.

4. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, toki entitatearen izaera izanen dute izaera desberdineko administrazio publikoek, soilik udal eskumeneko nahitazeko zerbitzuak emateko, sortzen dituzten borondatezko toki partzuergoek, zerbitzu horien konplexutasun teknikoa eta tamaina ekonomikoa direla-eta beharrezkoak direnean Nafarroako Lurralde Estrategiaren eskualdeak baino handiagoak diren jardute-esparruak, edo legez hala ezartzen denean”.

5. Aurreko puntuan aipatzen diren partzuergo-entitateak antolatu eta jarduteko araubidea Nafarroako toki entitateei aplikatu beharreko legeetan aurreikusitakoari lotuko zaio”.

**Lehen xedapen gehigarria.** Osasun, gizarte zerbitzu eta hezkuntza arloetako udal eskumenak, eta eskumen propioak edo eskuordetuak ez direnak.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du toki administrazioaren arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikuluan aitortua eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarrian berretsi eta zehaztua; horrenbestez, eskumen horretaz baliatuta, lege horrek indarra hartu baino lehen udalerriek zituzten eskumen propioak edo bere gain hartutakoak, ondotik zehazten diren gaietakoak eta aipatutako legearen lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aipatzen direnak, orain arte bezala erabiliko dituzte toki entitateek, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautzen dituen foru legearen arabera onetsi beharreko finantzaketa-

sistema berriak indarra hartu bitarte, hau da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den foru legeak. Aipatutako gaiak hauexek dira: oinarritzko osasun laguntzaren eta osasun arloko ikuskapen zerbitzuen kudeaketan parte hartzea, gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapen eta gizarteratzekoak ematea, bai eta lege horren hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren hezkuntza arlokoak ere.

Nafarroako toki entitateek, adierazi berri den irismen eta epe berarekin, modua izanen dute zerbitzu publikoak ematen jarraitzeko, edo Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak indarra hartu aurretik gauzatzen zituzten jarduerak gauzatzen jarraitzeko, esate baterako eskumen propioak edo eskuordetuak ez direnak, baldin eta, betiere, toki entitateek alde aurretik balorazioa egin eta ez bada arriskuan jartzen toki ogasun osoaren finantza iraunkortasuna, ogasuna osoki hartuta, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren legediaren eskakizunekin bat, eta, halaber, ez bada beste administrazio publiko bat zerbitzu publiko edo jarduera bera gauzatzen ari aldi berean. Toki entitateek bizilagunen beharrak betetzera bideratutako izaera bereko eskumenak hartzen badituzte beren gain, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 7.4 artikulua aipatzen dituen txostenak egin beharko dira.

Haur eskolei dagokienez, haien finantzaketa eginen da Udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroen finantzaketa arautzen duen uztailaren 1eko 16/2014 Foru Legean jasotakoaren arabera.

Foru Komunitateko Administrazioak behar diren baliabide ekonomikoak jarri beharko ditu udalen finantza-askitasuna bermatzeko, eskumen horietaz baliatu ahal daitezen, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautuko dituen foru legearen arabera –4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen da– onetsi beharreko finantzaketa-sistema berriak indarra hartu bitarte.

**Bigarren xedapen gehigarria.** 20.000 biztanle baino gutxiago zituzten udalerrietan zerbitzu jakin batzuk emateko moduz erabakitzeko eskumena.

Zerbitzuak emateko moduz erabakitzeko eskumena, Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 26.2 artikulua aipatzen duena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izanen du.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Nafarroan kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzekoa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Foru lege honen xedea da Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak edo kanabis-kontsumitzaileen klubak egungo legedian txertatzea eta, hartara, segurtasun juridikoa ematea kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonen eta gizartearen oro har, modu horretan osasun publikoaren babesa hobetuko baita.

Nafarroan cannabis sativa da gaur egun gehien kontsumitutako substantzietako bat, bai bere izaera ludikoan, bai gaitz jakin batzuetarako dauzkan eragin aringarriengatik.

Cannabis sativa Nazio Batuen Estupefazianteen buruzko Konbentzio Bakarraren I. zerrendan sartuta dago, nazioarteko fiskalizazioaren menpe, eta osasunari kalte larririk egiten ez dion substantziazat hartuta dago.

Substantzia hori edukitzeak zigor- eta administrazio-ondorioak ditu gaur egungo legedian, eta osasun kolektiboa da babestutako ondasun juridikoa.

Halatan, Zigor Kodearen 368. artikulua araber, droga toxikoak, estupefazianteak edo gai psikotropikoak landatu, prestatu edo trafikagai hartzen dituztenek, edo beste modu batera horien kontsumo ilegala sustatu, faboratu edo errazten

duzenek, edo aurreko helburuak lortzeko eurok edukitzen dituztenek droga-trafikoko delitua egiten dute, arrisku abstraktuko delitu moduan.

Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 25. artikulua xedatzen duenez, administrazio-zuzenbidearen arloan arau-hauste larria da, non eta ez dagoen arau-hauste penalik, droga toxikoak, estupefazianteak nahiz substantzia psikotropikoak leku, bide, establezimendu edo garraio publikoetan kontsumitzea edo modu ez-zilegian edukitzea –nahiz eta trafikatzeko asmorik izan ez–, bai eta aipatutako lekuetan horiek kontsumitzeko erabilita-ko gailuak edo tresnak abandonatzea ere.

Jurisprudentziaren arabera –aipatutako arauak nahiz errealitate soziala aintzat hartuta–, substantzia horien kontsumoa ez da sartzeko 368. artikuluan jasotako tipo penalean, baldin eta modu pertsonalean eta osasun kolektiborako arriskurik gabe egiten bada. Halaber, ez da administrazio arau-haustea izanen baldin eta kontsumo edo edukitze hori ez bada leku publikoetan egiten.

Hortaz, kanabisaren kontsumoa ez da arau-hauste penal edo administratiboa izanen, baldin eta arauak ezarritako eta jurisprudentziak interpretatutako mugak betetzen baditu. Muga horien artean onartzen dira bai kontsumo konpartitua, bai norberaren kontsumorako hornikuntza.

Lege-araubide horretan, kanabis-kontsumitzaileek segurtasun juridikoa emanen dien esparru bat bilatu ohi dute; bai kontsumoari dagokionez, bai beren autohornikuntzari dagokionez. Arlo horretako elkarten hausnarketaren ondorioz eta landare horren laborantza eta kontsumoa arautzeko dagokionez nazioartean ireki den aukeraren ondorioz, kanabis-kontsumitzaileen klubak deituri-koak sortu dira.

Klub horiek, zeinak irabazi asmorik gabeko elkarte gisa eta, hortaz, elkartzeko eskubidearen babesean eratu baitira, gure erkidegoan ere ugaltzen ari dira, eta araudi bat behar dute, elkarte

diren aldetik segurtasun juridikoa emanen diena eta, aldi berean, beren kideentzako nahiz oro har gizartearentzako segurtasun osoz jardutea ahalbidetuko diena.

Hortaz, foru lege honek klub horien eraketa arautuko du, cannabis sativaren erabiltzaileen kolektibo pribatu gisa eta legeak eta jurisprudentziak ezarritako mugak errespetatuz betiere.

Irabazi asmorik gabeko elkarte diren aldetik, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoa aplikatuko zaie, bai eta horri buruzko foru araudia ere.

Klubean asmoek eta helburuek nahiz barne-antolaketa errespetatu egin beharko dituzte beti jurisprudentziak ezarritako mugak, eta bermatu egin beharko dute klubeko kideak benetakoak eta zehatzak direla, horiek guztiak jada kontsumitzaileak zirela klubean sartu aurretik, substantziaren kontsumoa toki itxi batean eta taldean egiten dela, substantzia-kantitatea txikia dela eta ez duela gairiditzen kontsumo pertsonala, eta nolana ere ekidinen da substantziak klubekoak ez diren hirugarrenengana ailegatu ahal izatea.

Klubean jarduera garatzeko egoitzek udal ordenantzak errespetatu beharko dituzte, eta jardueraren lizentzia lortu beharko dute, indarrean den araudiaren arabera eta, kasua bada, Tabakismoaren kontrako osasun-neurriak eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzeko abenduaren 26ko 28/2005 Legean xedatutakoari jarraikiz –zeina abenduaren 30eko 42/2010 Legearen bidez aldatu baitzen–, bereziki erretzaileen klub pribatuei dagokienez..

Azkenik, interes orokorrekoa da administrazio publikoek –autonomia erkidegoetakoek nahiz tokikoek– informazioa trukatzeko eta koordinatzeko guneak sustatzea klubekin edo horiek ordezkatzeko dituzten elkarteekin, kontrol eraginkor bat mantentze aldera kontsumitzen diren substantzien gainean, klubean jardueraren gainean eta, oro har, osasun publikoaren onerako diren gai guztien eta kanabis-kontsumitzaileek legeaz kanpoko merkatuetara jotzea murriztea dakarten gai guztien gainean.

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

**1. artikulua.** Foru lege honen xedea da kanabis-kontsumitzaileen klubean eraketari, antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzko arau orokorrak ezartzea.

**2. artikulua.** Foru lege honen aplikazio-eremua Foru Komunitatea izanen da, eta toki entitateen

eskumenak errespetatuko ditu, kanabis-kontsumitzaileen klubean ezarpenari eta jarduerari aplikatzeko den orotan.

**3. artikulua.** Foru lege honek Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoan du babesa, kanabis-kontsumitzaileen klubak irabazi asmorik gabeko elkarte gisa hartzeari dagokionez.

**4. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz jardunen dute.

**5. artikulua.** Administrazioarekiko harremana.

Kanabis-kontsumitzaileen klubek administrazio publikoekiko harreman arina izanen dute, osasun-kontrolerako neurriak ezartzen lagunduko dute eta kontsumo arduratsua bultzatuko dute beren kideen artean. Horretarako, beharrezkoak diren organo edo entitateak sortuko dira, teknikariek, administrazioen ordezkariak eta klubetako kideek edo haien ordezkariak parte hartuta.

## II. KAPITULUA

### Kanabis-kontsumitzaileen klubean eraketa

**6. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek irabazi asmorik gabeko elkartearen forma juridikoa izanen dute, eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan xedatuaren arabera eratuko dira. Nafarroako Gobernuaren Elkartearen Erregistroan eman beharko dute izena, eta behar den dokumentazioa aurkeztu.

**7. artikulua.** Bazkide fundatzaileek ohiko kanabis-kontsumitzaile izan beharko dute klubak jarduten hasi aurretik.

**8. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubean helburuen artean honako hauek egon beharko dute, gutxienez ere:

- Beren kideei kanabisaren kontsumoaren arriskuen prebentziorako prestakuntza ematea, bai eta bere kontsumoaren kalteak gutxitzearen arlokoa ere.

- Beren kideek eginiko kontsumoaren nahiz substantziaren kontrola.

- Erabiltzaileei norberaren kontsumoari buruz informatzea eta hori erraztea.

- Kanabis-salmentaren legeaz kanpoko merkatua urritzeko lan egitea.

**9. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubean egoitzarako lokalek kokalekuari, egiturari eta osasungarritasun- nahiz higiene-arauei dagokienez



udal ordenantzetan xedatutakoa bete beharko dute, bai eta Tabakismoaren kontrako osasun-neurriak ezartzeko eta tabako produktuen salmenta, hornidura eta publizitatea arautzeko 28/2005 Legean xedatutakoa ere, kasua bada.

Fisikoki zeharo bereizita egonen dira jendeari arreta emateko edo bazkide ez diren pertsonak sar daitezkeen gunek eta kontsumorako gunek.

Toki entitateek, beren eskumenak baliatuta, egoki jotzen dituzten baldintzak ezarri ahalko dituzte, kanabis-kontsumitzaileen klubak jardunera bideratutako lokalak irekitzeari buruzkoak.

### III. KAPITULUA

#### Antolaketa eta funtzionamendua

**10. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek 1/2002 Lege Organikoan xedatutakoaren, beren estatutuen eta beren barne araudiaren arabera barne-antolaketa izan behar dute.

**11. artikulua.** Beren jardunean, kanabis-kontsumitzaileen klubek bete egin beharko dituzte beren kideek kanabisa kontsumitu ahal izateko ezarritako osasun- nahiz segurtasun-baldintzak.

**12. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideei zuzendutako jarduerak egin beharko dituzte, abusuzko kontsumoa ekidite aldera eta kanabisaren kontsumo arduratsua errazte aldera.

**13. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek beren kideei soilik utziko diete sartzen edozein kontsumo-jarduera egiten den lokaletan.

**14. artikulua.** Klubak bere kideen erregistro bat egin beharko du, kasuko datu pertsonalak jasota, halako moduan non edozein unetan zehazten ahalko baita nork osatzen duen elkartea, datuen babesari buruzko araudia uneoro errespetatuta.

**15. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubak bazkide izan ahalko dira klubean sartzeko eskabidea egin aurretik kanabis-kontsumitzaile direla frogatzen duten adin nagusikoak.

**16. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek ohorezko bazkideak izendatzen ahalko dituzte, kanabisa aztertu, ikertu eta garatzean egindako ekarpenarengatik elkartearen kalifikazio hori jasotzen duten pertsonen artean. Izendapen hori baztarr nagusiak onetsi beharko du, zuzendaritza batzordeak proposatuta.

**17. artikulua.** Eskubide osoko bazkideek eta ohorezko bazkideek ez ezik, "bazkide ekintzaile" deiturikoek ere osatzen ahalko dituzte kanabis-kontsumitzaileen klubak; alegia, beren izaera dela-

eta beren eskumen-esparruetan kanabisa normalizatzeko lana egiten dutenek.

**18. artikulua.** Kluba osatzen duten pertsona guztiek bete beharko dute legeetan nahiz funtzionamenduari buruzko barne-arauetan xedatutakoa.

**19. artikulua.** Kluba osatzen duten pertsona guztiek –eskubide osoko bazkideek, ohorezko bazkideek nahiz bazkide ekintzaileek– prestakuntza jaso beharko dute, kanabisaren kontsumoari lotutako balizko arriskuen eta kalteen prebentzioaren arlokoa.

**20. artikulua.** Kanabis-kontsumitzaileen klubak saiatuko dira eskubide osoko beren kideek substantzia ahalik eta organikoena eta adulteratu gabekoa kontsumi dezaten; hortaz, ezartzen diren osasun-kontrolak igaro beharko ditu substantziak.

**21. artikulua.** Kluba osatzen duten pertsonak behar bezala informatuta egoteko eskubidea dute, kanabisari, haren propietateei, haren eraginei eta hura kontsumitzetik etor litezkeen balizko arriskuei edo kalteei buruz, bai eta zigarreten ordezkari administrazio-moduei buruz ere.

**22. artikulua.** Elkarteko pertsonen betebeharra da kanabisaren kontsumo arduratsua egitea, bai eta klubekoak ez diren pertsonen kanabisaren kontsumoaren gaineko propaganda, publizitatea edo sustapenik ez egitea ere.

Elkarteko kide bakoitzak sinatutako zinpeko deklarazio baten bidez ezarriko da klubean erositako substantzien erabilera arduragaberik edo lege kanpokoan ez egiteko konpromisoa.

Estatutuek edo barne araudiko bestelako arauak elkartetik botatzeko arrazoi gisa jasoko dute betebeharrak horietako edozein ez betetzea; halatan, zuzendaritza batzordeak behar den salaketa jarriko du kasuan kasuko entitateetan, eta horrek ez dio elkarte horri inolako kalterik eragingen.

**23. artikulua.** Elkarteko kideek ezin izan behar dute hartu elkarteak egun eta pertsona bakoitzeko ezarritako cannabis sativa edo haren eratorrien edo estraktuen kantitatea baino kantitate handiagorik, arrisku prebentziorako neurrien eta nazioarteko estandarren arabera kalkulatuta.

**Lehen xedapen gehigarria.** Administrazio publikoek sustatuko dute lankidetzaren organoak sortzea horien eta kanabis-kontsumitzaileen klubak edo horiek ordezkatzeko dituzten entitateen artean, estatistika-ondorioetarako informazioa trukatzeko aldera, osasun-kontrolerako neurriak ezartze aldera, prebentzio-planak prestatzen parte hartze aldera eta kontsumo arduratsuari nahiz kontsumoak

dakartzan arriskuei edo Nafarroako Foru Komunitatean kanabisa kontsumitzearekin lotutako beste edozein gairi buruzko prestakuntza eskaintze aldera.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Kanabis-kontsumitzaileen klubek beraiek elkartzeko entitateak sortzen ahalko dituzte, interes komunak lortzeko nahiz administrazio publikoen eta gizarte osoaren aurrean haien ordezkari gisa jarduteko.

## **Foru Legea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

### **OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra erregulatu zuen, halakotzat jota pertsona publiko edo pribatuei dirua eskuratzea, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Dirua eman dadila onuradunen edo hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe.

b) Dirua emateak baldintza izan dezala helburu jakin bat betetzea, proiektu bat gauzatzea, jarduerak bat egitea, jokabide berezi bat hartzea, jada burutua dagoena edo burutzeko, edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunak bete egin behar ditu betebeharrak material eta formalak.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak xede izan dezala onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea.

Aipatutako testuan jasotzen dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek Estatuko oinarriko legedian sartutako aldaketak. Lege horren abiapuntua, zioen azalpenean aipa-

tzen den bezala, baliabide publikoen erabilera efizientziarik handiena lortzeko kezka berezia da, eta horretarako, hain zuzen ere, kudeaketa-prozedura batzuk ezartzen dira, diru-laguntzen ematea eragin zutenez bestelako xedeetarako desbideratzeak eragozte aldera.

Ezinbesteko helburu horrek inspiratutako testuak irabazi asmorik gabeko entitateei aplikatzean, arazoak ekarri ditu kasu batzuetan, halako entitateek ez baitute helburu ekonomikoak lortzera bideratutako egiturarik, baina, aldi berean, irauteko funts publikoen laguntza behar baitute.

Arazo horiek honakoan dautza: batzuetan, legearen malgutasunik eza kaltegarri gertatzen da entitateek baliabideen kudeaketa efizientea egiteko, diruz lagundutako jarduerak aurrera ateratzen dutenean aurreikusitakoa baino baliabide gutxiagorekin; horrenbestez, entitateek beren ekarpena handitu behar izaten dute, eta, kasu horietan, batetik, galerak izaten dituzte, eta, bestetik, aurrekoaren ondorio, beren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jartzen da.

Lege aldaketa honek konpondu nahi ditu egungo arauak eragindako distortsioak, bereziki hirugarren sektorea deitzen dena osatzen duten horrelako entitateei eragindakoak, eta horretarako bi artikuluko gehitzen ditu.

Lehenengoak aukera bat jasotzen du, diru-laguntzaren xedea eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea den kasuetan, aurrekoentako eskaerak berregiteko, noiz eta azkenean diru-laguntzarako proposatu den zenbatekoa txikiagoa denean onuradunak egindako eskaeran agertzen dena baino.

Bigarrenaren helburua da aukera ematea baliabideen erabilera efiziente batetik heldu diren gairu inbertitugabeak erabiltzeko, behin diru-laguntzaren helburuak beteta, diruz laguntzeko

modukoak diren beste jarduera batzuen finantzaketarako.

**Artikulu bakarra.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari aldaketa hauek egiten zaizkio:

**Bat. 20. bis** artikulu berria gehitzen da, honako edukia duena:

“20. bis artikulua. Eskaerak berregitea.

1. Diru-laguntzaren xedea denean eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea, eta instrukzioa egin duen organoak proposatzen duen diru-laguntza txikiagoa denean aurkeztutako eskaeran ageri dena baino, onuradunari eskatzen ahalko zaio, oinarri arautzaileetan hori aurreikusi bada, eskaera berregin dezala, konpromisoak eta baldintzak doitu ditzan balizko diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera. Doitze horrek berekin ekar dezake, kasu bada, diru-laguntza jaso dezakeen jarduerarako aurreikusitako diru-sarrerak gutxitzea modu proportzionalen.

2. Berregindako eskaerak instrukzioa egiten duen organoaren adostasuna lortu duenean, eskaera hori, egindako jarduera guztiekin batera, organo eskudunari igorriko zaio, ebazpena eman dezan.

3. Nolanahi ere, eskaerak berregiten direnean, diru-laguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaera edo eskaerak direla-eta ezarritako balorazio-irizpideak ere.”

**Bi. 28. bis** artikulu berria gehitzen da, honako edukia duena:

“28. bis artikulua. Inbertitu gabeko gerakinak.

1. Diru-laguntza eman zeneko helburuak bete ondoren eta baliabideak efizientziaz erabiltzearen

poderioz gerakin inbertitugabeak baldin badaude, horren barne direla diruz lagundutako jarduerari aplikatu ez zaizkion balizko finantza-etekinak, zilegi izanen da diru-laguntza eman duen organoari eskatzea, oinarri arautzaileetan hori aurreikusten denean, haiek erabili ahal izatea izaera bereko edo antzeko izaerako beste jarduera batzuetan; hain zuzen ere, oinarri arautzaile horien arabera diruz laguntzeko modukoak izan eta onuraduna egiten ari den jarduerak.

2. Eskaeran zehaztuko da amaitutako edo bidean dagoen –kasuan kasu– proiektuaren helburuen zabalpena, bai eta horri dagokion aurrekontua ere.

3. Diru-laguntza ematen duen organoak ebazpena emanen du, gerakina aplikatu behar zaion diru-laguntza emateari buruzko ebazpena aldatuz, edo deskribatutako gerakinak itzul daitezzen erabakiz.”

**Hiru.** Beste lerrokada bat gehitzen zaio 30. artikularen 3. idatz-zatiari. Hona testua:

“Hala ere, diruz lagundutako jarduera gauzatu ohi bada aurrekontu-ekitaldiarekin bat ez datorren urtaldi batean, nola izan baitaitezke kirol denboraldia edo ikasturtea, jarduera horretarako diru-laguntzak urtaldi horretara egokitzen ahalko dira, eta, horretarako, organo eskudunak aukera izanen du, Nafarroako Gobernuaren baimenik behar gabe, behar den gastu-konpromisoa hartzeko hurrengo ekitaldiaren kargura.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Foru Legea, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Osasuna kluba gure gizartean sakon errotutako entitate bat da, kirol hutsaren arloz haraindikoa, urteetan Nafarroako gizartearentzat erreferentzia izan dena eta gazteek kirola egin dezaten akuilu. 1920an sortu zenez geroztik, Club Atlético Osasunak Nafarroaren irudia bultzatzen lagundu du, nazio eta nazioarteko txapelketa ofizialetan izan duen parte-hartzearen bidez, halako moduz non Nafarroako gizartearen elkargune bihurtzera heldu den.

Hezkuntzari eta haurren nahiz gazteen artean kirola sustatzeari dagokionez ere, Osasuna klubak eginkizun garrantzitsua izan du, eta hori zaindu eta bultzatu beharra dago.

Halaber, aitortu beharra dago Osasuna diru-sarrerara handien iturri bilakatu dela batez ere zerbitzuen sektorearentzat, sakon errotutako taldea baita, jendea mobilizatzeko eta biltzeko ahalmen handieneko jarduera sozialetariko bat garatzen duena.

Osasuna klubak egun bizi duen egoera ekonomiko eta finantzarioak arrisku larrian jartzen du bere jardura garatzea. Gogorazi beharra dago 2003an 1/2003 Foru Legea onetsi zela, eta haren bidez 18 milioi euroko gehieneko abal bat eman zela zenbait finantza-entitatearen aitzinean. Une honetan, abalpeko kopurua 7,2 milioi eurokoa da.

Nabarmendu beharra dago Nafarroako Zerga Ogasunak zenbait jarduketa egin dituela 2008az geroztik, Osasunak zerga arloko bere betebeh-

rrak erregulariza zituan. Entitateak zenbait gerorapen eskatu zituen, araudi indardunaren babesean. Bere finantza-egoera, ordea, larriki okertu da, futbol profesionaleko liga nazionaleko bigarren A mailara jaitsi izanaren ondorioz.

Foru lege honek kirol entitate horren finantza-egonkortasuna lehengoratzea bideratu nahi du, artikuluetan adierazitako baldintzetan haren zergazorra berregituratzearen bidez. Horrek guztiak erantzuten dio ez soilik Osasuna bezalako erakunde enblematiko batek irauteak Nafarroako Foru Komunitatearentzat duen interesari, ezpada, beste edozein gogoetaz harago, Foru Ogasunaren interesen defentsan eman daitekeen konponbiderik onena dela uste izateari ere.

Halatan, foru lege honek helburu bikoitza bilatzen du, Osasuna klubarekin bat etorritz: alde bate-tik, klubak osorik kitatzea altxor publikoarekin hartutako betebeharrak; bestetik, betebeharrak horiek betetzea halako moduan non Osasunak bizirik iraun ahal izanen baitu, gaur egun bizi duen finantza-egoera larri-larria gorabehera. Beste agertoki batean, Nafarroako Zerga Ogasunarentzat ezinezkoa izanen litzateke zorra kobratzea, eta horri gehitu beharko litzaioke Nafarroako Gobernuak erantzun beharko lukeela 1/2003 Foru Legearen kariaz finantza-entitateen aitzinean abalaturako zenbatekoari dagokionez.

Alegia, asmoa da Nafarroako Foru Komunitatearekiko zorra osorik ordaintzea eta klubak bizirik irautea ahalbidetzea.

#### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea da Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin daukan zorraren ordainketa berregituratzea –zorra I. eranskinean dator zehaztuta–, hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzetan, eta abal bat ematea entitateak une honetan behar duen zirkulazioaren finantzaketa errazteko.

#### **2. artikulua.** Zorraren iraungitze baldintzatua.

1 Aipatu zerga-zorraren iraungipena baimentzen da, hain zuzen ere Osasunarekin ados jarrita hirugarren independente bati eskatzen zaion peritutasaziotik ateratzen den zenbatekoan, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatuz Osasunaren titulartasuneko erregistro-finkak, foru lege honetako II. eranskinean zerrendatutakoak.

2. Eskualdatze horren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitatearen interes orokorreko deklaratzeko emandako ondasunak.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutako tasazioa jasotzen denetik hilabeteko epean ematen da II. eranskinean zehaztutako finken gaineko eskualdatze-eskritura publikoa.

Hartara, eskualdatze-eskritura publikoa formalizatzeko ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak izendatutako pertsonari.

**3. artikulua.** Errentamendua eta erabilera-lagapena.

1. Baimena ematen da Taxoareko kirol instalazioak kokatuta dauden finkak Osasunari errentan emateko, bai eta Sadar futbol zelaiaren erabilera hari lagatzeko ere.

2. Errentamendu kontratuaren eta erabilera-lagapenaren iraupen-epea hogeita hamar urtekoa izanen da.

3. Errentan emandako finkaren urteko errenta 75.000 eurokoa izanen da kluba futbol profesionaleko liga nazionaleko bigarren A mailan dagoen bitartean; kluba txapelketa horretako lehen mailara igotzen bada, berriz, errenta 150.000 eurokoa izatera igaroko da. Kontratua indarrean dagoen bitartean, Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 18.1 artikuluan xedatuarekin bat gaurkotuko da errenta.

4. Osasunak bere gain hartuko ditu mantentze-eta kontserbatze-gastu guztiak, bai eta II. eranskinean azaldutako finken erabileratik heldu direnak ere.

5. Nafarroako Gobernuak eskubide lehenetsia izanen du eskualdatutako finketan kirol, hezkuntza nahiz kultur jarduerak sustatzeko; eskubide hori Osasunarekin adostuta baliatuko du departamentu eskudunak. Osasunak Nafarroako Foru Komunitateko 14 urtetik beheitiko gazteentzako kirol jarduerak ahalbidetzeko konpromisoa hartzen du.

6. Errentamendu-kontratua hilabeteko epean gauzatu da, aurreko artikuluan aipatutako eskualdatze-eskritura publikoa ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Hartara, errentamendu-kontratua sinatzeko ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak izendatutako pertsonari.

**4. artikulua.** Zerga-zorren diferentziala.

1. Osasunak ondoko baldintzetan ordaindu beharko dio Nafarroako Zerga Ogasunari II. eranskineko finken eskualdatzearen bidez ase ez den

zerga-zorren diferentziala, tasaziotik heldu den zenbatekoarekiko:

a) Interesik gabeko hiru urteko moratoria baten bidez, salbu eta taldea futbol profesionaleko liga nazionaleko lehen mailara igotzen bada; kasu horretan, moratoria baliorik gabe geldituko da, eta kasuko interesak exijituko dira.

b) Hogeita hamar urteko gehieneko geroratze baten bidez. Ondoko baliabideak hartuko dira hori ordaintzeko:

– Klubak ikus-entzunezkoen eskubideen laga-pena dela-eta jasotzen dituen zenbatekoen % 25, zeinak jaso eta berehala transferituko baitzaizkio Foru Ogasunari, moratoria-aldia bukatutakoan.

– Klubak jokalarien eskualdatze-eskubideak direla-eta (federazio-eskubideak eta eskubide ekonomikoak) jasotzen dituen zenbatekoen % 25, zeinak jaso eta berehala transferituko baitzaizkio Foru Ogasunari, moratoria-aldia bukatutakoan.

– Klubak Nafarroako Gobernutik babes-kontratuak direla-eta jasotako zenbatekoen % 100.

**5. artikulua.** Ikuskapena eta kontrola.

Osasunak bere estatutuak aldatuko ditu, kontrol batzorde bat ezartzeko. Batzorde horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari bat egonen da, egiaztatze aldera klubaren kaudimena nahiz foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla –hartara, egoki irizitako dokumentu guztiak egiaztatu ahalko ditu–, harik eta zerga-zorra osorik ordaindu eta abalak iraungi arte.

**6. artikulua.** Zorra iraungitzea.

1. Foru lege honek Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin 2014ko abenduaren 31n daukan zerga-zor osoa aintzat hartzen du, zeina hemen araututako operazioak betetzearekin iraungiko baita.

2. Zehazki, eraginik gabe geldituko dira zor hori dela-eta onetsitako geroratze-, zatikatze- edo/eta premiamendu-ebazpen guztiak, eta liberaturik geldituko dira ebazpen horiek betetze aldera eratutako berme guztiak, zein ere diren.

**7. artikulua.** Aurrekoen erantzukizunak.

Foru lege hau onesteak ez ditu erantzun beharretik salbuesten Osasuna klubak zituen aurreko administratzaileak, beren karguetan jardutean erru edo zabarkeria larriz egindako egintza edo ez-egiteengatik.

**8. artikulua.** Abala baimentzea.

1. Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrari baimena ematen

zaio Nafarroako Foru Komunitatearen abal bat eman dezan Osasuna klubaren alde, gehienez ere 4 milioi eurokoa, bere jardura finantzatzeko beharrezkoak dituen kreditu nahiz mailegu operazioak egin ahal izatea bermatzeko.

2. Abalak gehienez ere hamabost urteko epea izanen du. Entitate abalatuak jasotako dirua entitate hartzekodunari edo hartzekodunei osorik itzultzean bukatuko dira horren eragin guztiak.

3. Abal hori emateko baldintzak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateak Club Atlético Osasunari abal bat emateko otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legean ezarritako berberak.

4. Otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legearen bidez Osasunaren alde emandako abalak estalitako kreditu nahiz mailegu operazioen nobazio kasuan, abalak indarrean jarraituko du gehienez ere hamabost urteko epean, operazio horien nobazioa formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Baimenak formalizatzeko eta sinatzeko baldintzak.

Foru lege honetako 2., 6. eta 8. artikuluetan jasotako baimenak formalizatzeko eta sinatzeko, nahitaez bete beharko dira ondoko baldintzak:

Nafarroako Gobernuak Osasuna klubari eskatzea eta harekin adostea agindu dezan hark kanpo-auditoria bat egiteko bere kargura, 2005etik 2014ra bitartekoa, berariazkoa eta ezeztazina. Auditoria hori Nafarroako Parlamentura igortzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzea, zuzenean nahiz parla-

mentu-taldeen bidez, Mahaiak erabaki dezala Kontuen Ganberari eskatzea auditoria bat egin dezan Nafarroako Ogasunak Osasunari dagokionez 2005etik 2014ra bitarte egin dituen, edo egin behar zituen, jarduketa guztiei buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak Osasunari eskatzea eta harekin adostea klubaren bideragarritasunari buruzko planak Gobernuari igor diezazkion, bai eta haren nortasun edo egoera juridikoari buruzko balizko aldaketak ere, ondoren Nafarroako Parlamentuari igortzeko.

**Azken xedapenetan lehena.** Eskumen-esparrua.

Foru lege hau onesten da Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa daukalako, bere foru araubidearen indarrez, finantza eta zerga alorrean nahiz kirolaren sustapenaren alorrean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 45. eta 44.14 artikuluetan hurrenez hurren ezarritakoarekin bat eta lege organiko horretako 26. artikuluko a) letran ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen baitio, Nafarroako Parlamentuak alde aurretik baimena emanaz gero, abalak eta bermeak eratzeko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## I. ERANSKINA

GERORATZE- ESPEDIENTEA	ZOR MOTA	ORDAINTZEKE DAGOEN PRINTZIPALA	INTERESAK + ERREKARGUAK	2014-11-28ra BITARTEKO INTERESAK	GUZTIRA
09/40511	BEZeko ARRUNTA ETA ATXIKIPENAK	8.154.825,35		8.795,72	8.163.561,07
12/71798	ARRUNTA ETA PREMIAMENDUA	7.031.081,48	1.516.718,32	1.405.253,13	9.953.052,93
12/71797	ARRUNTA	3.749.210,43	37.737,48	633.473,58	4.420.421,49
12/74796	PREMIAMENDUA	194.646,91	6.893,49	34.363,48	235.903,88
12/71799	PREMIAMENDUA	885.305,57	223.751,57	108.055,79	1.217.112,93
12/71800	ARRUNTA	6.822.562,39	122.741,73	832.726,45	7.778.030,57
13/82441 AKTAK	ATXIKIPENAK, ARRUNTEAN	2.550.616,18	471.599,59	211.037,28	3.233.253,05
13/82422 AKTAK	ZEHAPENA, ARRUNTEAN	1.215.470,48	0,00	100.567,69	1.316.038,17
GERORATZEKE	ATXIKIPENAK ETA BEZa	15.111.281,69	52.942,64	384.394,06	15.548.618,39
	BEZa ETA ATXIKIPENAK, 2014-12-31ra bitartean	1.160.000,00			1.160.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>46.875.000,48</b>	<b>2.432.384,82</b>	<b>3.718.607,18</b>	<b>53.025.992,48</b>

## II. ERANSKINA

IZENA	IDIFUR	Katastroko erref.	ERREGISTROA/ATALA	LIBURUA	LIBURUKIA	FOLIOA	FINKA	INSKRIPZIOA
DOTAZIOETARAKO ERAIKIN BUKATUA, SADAR KALEA, 59-D, IRUÑA	31020000249353	05/1648/01/001	Iruñeko 7. jabetza-erregistroa	508	508	4	17394	2.a
Pisua, Alfontso Borrokaliariaren kalea, 11, 2.G, Iruña		04/0199/01/034	Iruñeko 2. jabetza-erregistroa	333	4328	46	20175	3.a
Pisua, Alfontso Borrokaliariaren kalea, 11, 2.H, Iruña		04/0199/01/035	Iruñeko 2. jabetza-erregistroa	333	4328	49	20177	3.a
DOTAZIOETARAKO ERAIKIN BUKATUA ETA LURSAILA, OSASUNA S-p POLIGONOAN, TAXOAREKO (ARANGUREN) 3. POLIGONOKO 571. ETA 819. LURZATIAK *			Agoizko 1. jabetza-erregistroa	177	3383	105	11039	1.a
HIRI-LURZORU FINKATU GABEA ETORKIZUNEKO ENPRESA PARKEKO e.u.-ko LURSAILEAN, TAXOAREKO (ARANGUREN) 571. LURZATIAN.	31001001201717	03/0571/02/001 03/0571/03/001	Agoizko 1. jabetza-erregistroa	183	3431	172	11485	1.a
LURZORU URBANIZAGARRIA, HEZKUNTZA PUBLIKOKO DOTAZIOETARAKO, XXIII. UNITATE INTEGRATUA KALEA, So-1 ORUBEA, IRUÑA	3.102E+13	05/1141/01/001	Iruñeko 7. jabetza-erregistroa	162	369	126	9871	6.a

\* 11039 erregistro-finka dagokio 3. poligonoko bi katastro-lurzatiren baturari: 571 lurzatiko C azpierenua eta 819 lurzatiaren zati bat (Taxoare kirol, aisia eta gastronomia elkartearen igentleku-instalazioetarako bereizitaiko 19.141,00 metro koadroko zatia deskontatu behar da).



**Foru Lege proposamena, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Foru Lege proposamena, Osasuna klubari bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak eta Patxi Leuzá García jaunak aurkeztutako Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testuategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2014ko urriaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea hein batean aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko apirilaren 14ko 6/2014 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Proposamen hori 2014ko urriaren 17ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztutako Foru Lege proposamen hau: "Foru Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta Babes Jardueren

Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, eta Kooperatiben Zerga-araubidea ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea."

Proposamen hori 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztutako Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Proposamen hori 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2014ko azaroaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.**

*PROPOSAMENA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2014ko azaroaren 27an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Ezkerreko parlamentu-taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena erretiratu izanari dagokionez. Foru Lege proposamen horren bidez aldatzen zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz-

ko Foru Legea, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta 2014ko urriaren 31ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

